

Banandu egingo gara, horrek gure seme-alabak kaltetu ditzake?

Haurrek euren gurasoak elkarrekin jarraitzea nahi dute, baina batzuetan banantzea edo dibortzioa beharrezko neurri bat da harremana oso gatazkatsua bihurtu denean, seme-alabengan ondorio larriak dituen edo egoera konpontzeko baliabideak bukatu direnean.

Banandu baino lehen:

- Errespetuzko portaerak mantendu zuen seme/alabari psikologikoki kalterik ez eragiteko.
- Seme-alaben aurrean ez da eztabaidarik izan behar eta ez da indarkeriarik agertu behar.
- Banantzea ezinbestekoa denean eta berehala emango denean, gorrotoa eta mespretxua erakustea saihestu behar da.
- Seme-alabak ez du bat edo bestea aukeratu behar eta ez da horretara behartu behar, erabakia aurretik adostu behar da.
- Eztabaidak seme-alabak aurrean ez daudela izango dira.
- Banantzea pixkanaka egitea planteatu daiteke, haurrek ez dezatela ezustean hartu.
- Biak batera eman banantzearen berri. Albiste triste baten moduan azaldu, hitz errazak erabili eta bikoteari dagokion gauza dela gari utzi, haurrei errua bota gabe. Bikotearen arteko gatazkekin amaitzeko modurik onena dela ohartarazi.
- Utzi zuen seme-alabei bere sentimenduak azaltzen, baita gurasoekiko amorrua agertu behar badute ere. Lasai azaldu eta saiatu elkarrekin hitz egiten.
- Elkarrenganako errespetua erakutsi, eta zuen seme-alabei ez adierazi bestearenganako duzuen ikuspegi negatiboa.

Banantzeko prozesuan zehar:

- Garbi utzi banantzea ez dela seme-alabak gaizki portatzen direlako (hartara ez dira errudun sentituko); familia barruan harremanak hobetzeko erabakia dela azaldu.
- Seme-alabei ez daudela bakarrik gogoratu behar zaie, haiek maite dituzten pertsonak daudela eta beraiekin daudela esan behar zaie (aita, ama, aiton-amonak, izeba-osabak...).
- Nahiz eta gurasoak elkarrekin ez bizi, horiekin egoten jarraituko dutela esan, banaketa bikotean bakarrik izan dela, eta ez seme-alabekin.

- Nahi duten bakoitzean aita edota amarekin hitz egin dezakete, hobeto sentitzeko.

Haustura eta gero:

- Egoeraren berri kontu handiz eman: norekin biziko diren, noiz ikusiko duten aita/ama, elkarrekin bizi ez diren baina seme-alabak berdin maite dituzten beste familiak ere badaudela azaldu, ... Bikoteak hori guztia nola izango den erabaki behar du informazio hori eskaini ahal izateko.

- Seme-alaben aurrean ez ibili bestearengatik gaizki esaka.

- Zuen seme-alabei maitasuna adierazi, garbi izan dezaten ez zaretela euren eruz banandu. Banantzea erabaki baduzue, zuen arteko elkarbizitza bateraezina delako izan dela azaldu..

- Ez erabili seme-alabak norberaren mesederako edo besteari kalte egiteko.

- Seme-alaben xantaiaren aurrean (badago) ez amore eman. Sarritan, haurrek probetxua atera nahi diote bizitzen ari diren egoerari eta "abantaila bereziak" eskatzen dituzte baina hori ez da ona eta ezin zaie horrelakorik onartu.

- Argi eta garbi adieraziko zaie banantzea/dibortzioa behin betirako dela.

LABURPENA

Bikote batek banantzea erabakitzen duenean, legezko arazoetan eta tentsio emozionalez betetako momentu batean murgilduta dago. Dena den, badago beste egoera bat eta, batzuetan, ez diogu egoerari horri benetan duen garrantzia ematen: banaketa horren aurrean seme-alabek daukaten bizipena. Kontrolatu beharreko beste faktore batzuen artean, gatazka maila garrantzitsuena da.

Ainhoa Manzano Fernández Dk.

Juan Luis Martín Ayala Dk.

ETXADI

Familiaren Psikologia Unibertsitate-Zentroa